

## 2027KO UDAL EGUTEGIRAKO ARGAZKI BILDUMEN LEHIAKETA

### **HELBURUA eta GAIA**

Astigarragako Udalak 2027ko egutegia osatzeko argazki bildumen lehiaketa antolatu du.

Datorren urteko egutegirako gaia argazkilari bakoitzaren aukerakoa izango da eta gai horren ingurukoak izango dira egile bakoitzak aurkeztu beharreko argazki guztiak, hau da, azalekoa eta beste hamabiak. Argazkiak gaiarekin edota beren artean lotura izateaz gain, Astigarragan ateratakoak izango dira.

### **BALDINTZA OROKORRAK**

Partehartzaileak: 14 urtetik gorako edonork parte har dezake, jatorri mugarik gabe.

Partehartzaile bakoitzak 13 argazki aurkeztu beharko ditu.

Argazkien formatua: etzanak izan behar dute, JPG formatuan eta 5 Mb eta 8 Mb bitarteko pisukoak eta DIN-A4 neurrirako eginak. Pen-drive batean Erribera kulturgunera ekarri edo astigarraga.kultura@gmail.com helbidera bidal litezke, mezuaren gai gisa "2027ko EGUTEGIA" idatzita. Argazkiekin batera horretarako prestatutako izenemate orria osatuta ere aurkeztu behar da.

Mezu elektronikoa jaso izanaren baieztapena bidaliko da eta, jaso ezean, 943335064 telefonora deitu behar da.

### **LEHIAKETAREN FASEAK**

Argazkiak aurkezteko epea: azaroaren 2ko goizeko 9:00ak.

Epaimahaiaren erabakia eta sariak banatzea: azaroko bigarren hamabostaldian.

Argazkiak jasoko dituen 2027ko udal egutegia abenduaren 15etik aurrera banatuko da Astigarragako udaletxean, Erribera kulturgunean eta Astigarragako Astiko merkatarien elkarteko bezeroen artean.

### **EPAIMAHAIA**

Epaimahaia Kultura batzordeko kideek egingo dute argazkien aukera argazkilaritzan aditua den norbaitekin batera.

Epaimahaiak egutegirako bilduma bat aukeratuko du eta, argazkien kalitate teknikoaz gain, honako hauek baloratuko ditu: bildumako argazkien arteko batasun bisual eta estetikoak, egileak aukeratutako gaiarekiko lotura eta ikuspegi aniztasuna eta aukeratutako gaiaren originaltasuna.

## SARIAK

**Lehena:** 2.000€ (+BEZ, hala badagokio) saria, argazki bilduma onenari (12 hilabete eta azala) eta argazkiak Astigarragako Udalaren 2027ko egutegian argitaratuko dira.

**Bigarrena:** 300€ko bigarren bilduma onenari. Saria jasotzeko Erribera kulturgunean aurkeztu behar dira, 2026ko abenduaren 15a baino lehen, Astigarragan kokatutako denda, jatetxe, zerbitzu edo enpresetan 300 € edo gehiagoko gastuei dagozkien 2026ko fakturak (bakarra ere izan liteke).

**Hirugarrena:** 150€ko saria. hirugarren bilduma onenari. Saria jasotzeko Astigarragan kokatutako denda, jatetxe, zerbitzu edo enpresaren bateko 2026ko faktura edo tiketa(k) aurkeztu behar dira (bakarra ere izan liteke) Erribera kulturgunean 2026ko abenduaren 15a baino lehen.

Saridunek saria jasotzeko kontuaren banku titulartasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Udalak argazki lehiaketarako aureikusitako sariak eta egutegiaren argitalpenaren gastua 1 0700.227.04.334.00 2026 (1207) kontu sailetik bideratuko ditu.

Argazki guztiak erabiltzeko eta erreproduzitzeko eskubidea Astigarragako udalarena izango da, egilearen izen-abizenak beti aipatzeko konpromisoarekin.

Argazki lehiaketan parte hartzeak oinarrietako baldintzak bere horretan onartzea dakar eta aurreikusi gabeko gorabeherarik balego, antolatzaileak ebatziko du.

Argibide gehiago izateko Astigarragako Erribera kulturgunearekin harremanetan jar liteke: 943 33 50 64.